

JOKABIDE KODEA



Dokumentua, jatorrizko formatu zein edukian, Orkli Taldearen edozein langileren esku dago, begiratu ahal izateko BeOne intranetean.

V2web: 2020.10.16

AURKIBIDEA

or.
04 / 01. SARRERA

or.
06 / 02. APLIKAZIOA ETA BETETZEA

or.
08 / 03. KOMUNIKAZIOA ETA JARRAIPENA

or.
12 / 04. ORKLI TALDEAREN BALIOAK

or.
14 / 05. PROIEKTU PARTEKATUA. MISIOA

or.
16 / 06. PRINTZIPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE ARAUAK



SARRERA


ORKLI Taldearen helburua da enpresa osatzen duten pertsonen jokabideak indarreko legeriari erantzutea eta Jokabide Kode honek ezarritako Balio eta Printzipio Etikoekin bat etortzea.

Helburuak:

- a) Pertsonak beren jarduera profesionalean eta Orkli Taldeko beste pertsonekin zein enpresa hornitzaileekin, bazkideekin, bezeroekin Administrazio Publikoekin eta, oro har, gizartearekin mantentzen dituzten harremanetan jarraitu beharreko **jokabide-arauak eta balio eta printzipio etikoak ezartzea.**
- b) **Kultura kooperatiboarekin koherenteak diren kudeaketa-dinamikak sustatzea**, jarduera-eredu etiko, iraunkor eta sozialki arduratsu bateratu bat eskaintzeko.

Era berean, Jokabide Kodeak enpresa-kultura idatziz islatzen du eta hura finkatzen laguntzen du.

ORKLI Taldeak ez du Jokabide Kode honen aurkako inolako ekintzarik onartzen. Enpresaren organo guztiek (Zaintza Batzordea, Gizarte Kontseilua, Betetze Batzordea, Kontseilu Errektorea eta Zuzendaritza Kontseiluak) Jokabide Kodearen ezagutza bultzatu eta hura zabaldu behar dute eta ez-betetzeak Betetze Batzordeak kudeatuko ditu.



APLIKAZIOA ETA BETETZEA

2.1 PERTSONAK

Jokabide Kodeak **ORKLI Taldea** osatzen duten pertsona guztiak barne hartzen ditu, beraien maila hierarkikoa edo kokapen geografikoa edo funtzionala gorabehera eta, era berean, Kontrolatutako Sozietateei aplikagarria da eta, ahal den neurrian, **ORKLI Taldea** partaide den gainerako sozietateei ere bai, tokian-tokian zein nazioartean.

Jokabide Kodea enpresa hornitzaileei, bazkideei eta Orkli Taldeko bezeroei zabalduko zaie.

2.2 BETETZEKO BETEBEHAR OROKORRA

ORKLI Taldea osatzen duten Pertsonak Jokabide Kodearen edukia ezagutu eta bete beharra daukate, bai eta bertan jasotako Balio eta Printzipio Etikoak ere.

2.3 ZUZENDARITZA KONTSEILUKO, KONTSEILU ERREKTOREKO ETA BESTE ORGANO BATZUETAKO KIDEEEN JOKABIDE KODEA BETETZEKO BETEBEHARRA

Bereziki beharrezkoa da Jokabide Kodea ezagutzea eta betetzea Kontseilu Errektoreko, Zuzendaritza Kontseiluko eta gainerako organoetako kideentzat (Zaintza Batzordea, Gizarte Kontseilua, Betetze Batzordea, etab.).

2.4 ENPRESA HORNITZAILEEN BETETZEKO BETEBEHARRA

Jokabide Kodea ezagutzea eta betetzea derrigorrezkoa da **ORKLI Taldeko** enpresa hornitzaileentzat.

2.5 JOKABIDE KODEAREN KOMUNIKAZIOA

Jokabide Kodea **ORKLI Taldea** osatzen duten pertsona guztiei jakinaraziko zaie Harrera Planaren bidez. Plan horrek Jokabide Kodea irakurri eta betetzeko beharra adierazten du.



KOMUNIKAZIOA ETA JARRAIPENA

3.1 INDARREAN SARTZEA

Jokabide Kode hau indarrean dago ORKLI, S.Coop.eko Kontseilu Errektoreak onartu zuenetik, hau da, 2019ko martxoaren 20tik, eta indarrean mantenduko da hura ordezkatzeko duen kode berri bat onartu arte edo hura indargabetzeko, berrikusteko edo eguneratzeko berariazko akordio bat egin arte.

3.2 INTERPRETAZIOA

Jokabide Kodearen edo **ORKLI Taldearen** 'Compliance Program' delakoaren menpeko edozein Kontrolen arteko desadostasunik egotekotan, Jokabide Kodeak lehentasuna izango du. Era berean, Kontrolen interpretazioa Jokabide Kode honen izaeraren eta xedearen arabera egingo da.

Betetze Batzordeari dagokio Jokabide Kodearen edukia interpretatzea eta interpretazioaren gainean sortzen den edozein zalantza ere berak ebatziko du.

3.3 BETETZE BATZORDEA

Bere erantzukizuna da Jokabide Kodea betetzen dela **bermatzea** eta hura berrikusi eta eguneratzen du. Halaber, **ORKLI Taldearen** 'Compliance Program' delakoa osatzen duten Kontrolen multzoa proposatzen du.

Bere osaera, funtzionamendua, eginkizunak eta hari buruzko gainerako alderdiak Batzorde horren Antolaketa eta Jarduerari buruzko Araudiak arautzen ditu.

3.4 EZ-BETETZEA ETA KANAL ETIKOARI JAKINARAZTEA

Jokabide Kodea haustek lan-zehapenak edo sozietarioak ekar ditzake, baita zigor penal edo administratiboak ere.

Jokabide Kode hau edo hura garatzen duten Kontrolak hautsi direla dakien Pertsona orok zuzenean eman beharko dio ez-betetzearen berri Betetze Batzordeari Kanal Etikoaren bidez.

Egindako komunikazioak honako hauek jaso behar ditu:

- Komunikatzailearen nortasuna;
- Komunikazioaren xede diren gertakarien deskribapen zehatza (Ez-betetzearen data, inplikaturako pertsonak, eta abar); eta
- Komunikatzaileak dauzkan froga guztiak (dokumentazioa, lekukoak eta abar).

Jakinaren gainean egonda, Jokabide Kodea betetzen ez dela ez jakinaraztea ez-betetzetzat joko da.

Komunikatzaileari Kanal Etikoari egindako komunikazioarekin lotutako aurrerapenen berri emango zaio.

3.5 KOMUNIKAZIOEN KONFIDENTZIALTASUNA ETA ERREPRESALIAK HARTZEKO DEBEKUA

ORKLI Taldeak, Betetze Batzordeko kideek bere gain hartzen dituzten eginbeharren bidez, Kanal Etikoari komunikazioak egiten dizkieten pertsonen nortasunari buruzko konfidentzialtasuna bermatuko du, babesteari buruzko araudiaren eskakizunak errespetatuz.

Debekatuta dago komunikazio bat egiteagatik errepresaliak edo ondorio negatiboak izan ditzakeen edozein neurri hartzea.

Errepresalien debekuak ez du eragotziko diziplina-neurriak hartzea, hala badagokio, barne-ikerketa batek jakinarazpena faltsua dela zehazten badu.

3.6 KANAL ETIKOAREN PROZEDURA

Betetze Zuzendariak Kanal Etikoaren bidez jasotzen dituen komunikazio guztien erregistro bat eramango du eta honek barne-ikerketa bat martxan jartzeko adieraziko dio Betetze Batzordeari.

Barne-ikerketa egiteko, Betetze Batzordeak egoki iruditzen zaion informazio edo dokumentazio guztia bildu ahal izango du **ORKLI Taldeko** edozein negoziio edo sailetik (ikus 6.1 atala).

Komunikazioak Betetze Batzordeko kide bati eragiten badio, hark ezin izango du izapidetzean parte hartu eta Intereseko gatazkari buruzko arauak aplikatuko dira.

Prozedura Betetze Batzordearen ebazpen batekin amaituko da. Horretan, proposamen edo ekintza zuzentzaile bat adieraziko da, Kontseilu Errektoreak edo dagokion organo eskudunak onartu behar duena. Hala badagokio, proposamenak kasuan kasuko diziplina-neurriak ezarriko ditu, lan-legeria aplikatuz.



ORKLI TALDEAREN BALIOAK

ORKLI Taldearen kultura oinarritzen den printzipio etikoak dira Baloiak, enpresa osatzen dugun guztiok partekatzen ditugunak. **Lehen pertona singularrean formulatzen ditugu, norberarekiko zorroztasuna eta banakako erantzukizuna azpimarratzeko:**

4.1 KONPROMISOA

Nire mailari dagozkion **erantzukizunak eta erabakiak nire gain hartzen ditut** eta aparteko **ahalegina egiten dut hala behar denean**. Nire buruarekin zorrotza naiz eta ikasteko eta profesional hobea izateko aukera berriak bilatu eta baliatzen ditut.

4.2 BEZEROARI LEHENTASUNA

Bezeroa da nire lehentasun nagusia. Bezeroak ni haren errealiterara egokitzen den aliatu hurbiltzat hartzea nahi dut, edozein geografi atakoa eta barnekoa ala kanpokoia izan. Fidagarritasuna eta lanerako bikaintasuna ditut bereizgarri, eta bezeroari espero duena baino gehiago ematen diot, zerbitzurako bokazioari eta erantzuteko bizkortasunari eta gaitasunari esker.

4.3 ZINTZOTASUNA

Begirunea, egiazaletasuna, prestutasuna eta konfiantza dira nire harremanen oinarri. Horregatik, koherentzia dago esaten eta egiten dudanaren artean. Irekia nago ikuspuntu berrien aurrean, aniztasunak aberastu egiten gaituela eta balioa ematen digula uste baitut.

4.4 DENEN ONGIZATEA BILATZEA

Onartzen dut ORKLI taldearen helburuak nire helburuen aurretik jartzea, eta belaunaldi arteko konpromisoa sustatzen dut, hasieratik ORKLlren bereizgarri izan den heinean. Lankidetzeta eta eskuzabaltasuna dira proiektu partekatuaren ardatzak, eta nik proiektuak luzaroan iraun dezan laguntzen dut. Kooperatiba-eredua neure egiten dut, eta taldearekiko, inguruarekiko eta lan egiten dugun komunitateekiko elkartasuna eta inplikazioa azaltzen ditut.

4.5 HOBETZEN JARRAITZEKO NAHIA

Egunerokoan **lan egiteko modua nola hobetu eztabaidatzen dut**. Asmo handikoa naiz, erronka eta aukera berriak jartzen dizkiot nire buruari, eta, hala behar denean, arriskuak ere hartzen ditut. Zailtasunen aurrean adoretzen naiz, eta pasioz, baikor eta jarraikortasunez egiten diet aurre. Besteak ditut euskarri, eta haien laguntza onartzen dut erronka eta zailtasun handiei aurre egiteko.




PROIEKTU PARTEKATUA. MISIOA

Misioak gure zer eta zertarakoa laburbiltzen ditu. Zertan lan egiten dugun definitzen du, zer beharri erantzuten diegun eta oinarrizko zer bereizgarrirekin saiatzen garen gure xedea betetzen. Eta Misioan adierazitakoari leial izateko konpromisoa harrarazten digu.

misioa

Bezeroari egokitutako irtenbide oso eraginkorrak garatzen ditugu, pertsonen ongizatea lortzen laguntzeko, gure enpresa-proiektuaren printzipio kooperatiboak eta iraunkortasunari jarraikiz.





PRINTZPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE ARAUAK

6.1 JOKABIDE ARAU OROKORRAK

- **Profesional zintzoa izatea**

ORKLI Taldeko pertsonen jokabidea profesionaltasunean eta zintzotasunean oinarritu beharko da.

- a) **Profesionaltasuna** portaera arretatsua, arduratsua, zentzuduna eta eraginkorra da.
- b) **Zintzotasuna** portaera leiala, zintzoa eta fede onekoa da, norberarekiko eta besteekiko errespetutsua jarduera profesionala burutzean.

Pertsonek Jokabide Kode honetan ezarritako printzipio etikoak aplikatuko dituzte norberarekiko eta besteenganako eta ez dute beren jarduera profesionala agindutakoa ez den beste helburutara bideratuko.

- **Orkli Taldean onartutako legeak, barruko arauak eta kontratuak errespetatzea**

Pertsona guztiek indarrean dauden legeak errespetatu beharko dituzte bere jarduera profesionalak garatzean, bai eta **ORKLI Taldean** barruko arauak eta kontratuak. Halaber, pertsonek Jokabide Kode hau bete beharko dute, baita 'Compliance Program' delakoa osatzen dituzten Kontrolak ere.

Horrez gain, pertsonek **ORKLI Taldeak** hirugarrenekin egindako kontratu harremanetan bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak errespetatu beharko dituzte, bai eta jarduera profesionala burutzen duten herrialdeetako erabilera eta praktika onak ere.

Kontseilu Errektoreko, Zuzendaritza Kontseiluko eta gainerako organoetako kideek (Zaintza Batzordea, Gizarte Kontseilua,

etab.) eta pertsona taldeak kudeatzen dituztenek egin beharrekoa:

- a) Dagokien jardueraren arloan legea, Jokabide Kodea, Kontrolak eta kontratuak hobekien ezagutzen dituztenak izatea.
- b) **ORKLI Taldean** jokabidean erreferenteak izatea.
- c) Beren ardurapean dauden pertsonen **ORKLI Taldeari** eragiten dioten legeak, Jokabide Kodea, Kontrolak eta kontratuak ezagutu eta betetzea ahalbidetuko dien informazioa eta formazioa jasotzen dutela zaindu eta ziurtatzea.

• Interes Gatazkak

Intereseko Gatazka dagoela ulertuko da **ORKLI Taldeko** pertsonaren baten interes pertsonala eta enpresa beraren interesa talkan sartzen direnean edo eraginda edo desitxuratuta gertatzen denean. Interes pertsonala egongo da gaiak pertsonari zuzenean eragiten dionean edo pertsonari lotutako beste bati.

Pertsonari lotutakotzat joko da pertsonaren ezkontidea edo antzeko afektibotasun harremana duen pertsona; pertsona edo ezkontidearen (edo antzeko afektibotasun harremana duen pertsona) familian aurreko eta ondorengo adarrekoak, nebar-arrebak; baita pertsona edo berari lotutako pertsonak administrazio edo zuzendaritza karguren baten kontrola dutenean, edo, eragin esanguratsua sozietate edo enpresa horien erabaki finantzario eta operatiboetan, zuzenean edo zeharka.

Intereseko Gatazka baten aurrean dagoen pertsonak haren berri emango dio, ahalik eta lasterren, zuzeneko aginteari. Era berean, Interes Gatazkak eragindako pertsonak ez du Interes Gatazkak eragindako erabakietan parte hartu edo eragingo, ezta erabaki horiek aztertzen diren bileretan parte hartuko ez intereseko gatazka horrek sortzen duen informazio konfidentzialik jasoko.

6.2 NAZIO BATUEN MUNDU MAILAKO ITUNA

Nazio Batuen Munduko Ituna (UN Global Compact) Enpresen Gizarte Erantzukizuna bultzatzen du eta, horretarako, enpresei eskatzen die beren eragin-esparruan oinarriko balioen multzo bat ezartzea, bultzatzea eta aldarrikatzea Giza Eskubideen, Lan-arauen, ingurumenaren eta ustelkeriaren aurkako arloetan. Xede horrekin, **ORKLI Taldeak** bere gain hartzen ditu Nazio Batuen Munduko Itunaren Hamar printzipioak:

GIZA ESKUBIDEAK

- **1. Printzipioa.**
Giza eskubideak babestu eta errespetatzea.
- **2. Printzipioa.**
Ez izatea eskubideen abusuen konplize.

LAN ESPARRUA

- **3. Printzipioa.**
Elkartzeko askatasunaren eta askatasun sindikalaren eta negoziazio kolektiborako eskubidearen printzipioak babestea.
- **4. Printzipioa.**
Derrigorrezko lana desagerraraztea.
- **5. Printzipioa.**
Haurren lan mota oro indargabetzea.
- **6. Printzipioa.**
Enpleguaren eta okupazioaren arloko diskriminazioarekin amaitzea.

INGURUMENA

- **7. Printzipioa.**
Ingurumenaren aldeko ikuspegi prebentiboa izatea.
- **8. Printzipioa.**
Ingurumen erantzukizun handiagoa sustatzen duten ekimenak bultzatzea.
- **9. Printzipioa.**
Ingurumena errespetatzen duten teknologien garapena eta hedapena sustatzea.

USTELKERIAREN AURKA

- **10. Printzipioa.**
Forma guztietako ustelkeriaren aurka lan egitea, estortsio eta eroskeria barne.

6.3 GIZA ESKUBIDEAK

- **Pertsonen errespetua**

Pertsona guztiek sustatuko dute maila profesional guztietan elkarrekiko errespetua, osotasuna, zintzotasuna, konfiantza, lankidetzeta eta esfortzua taldean lan egitean, lankideen, agintarien eta arduradunen arteko laneko giro ona lortzeko helburuarekin.

Lanean ez da onartuko errespetu faltarik, irainik, difamaziorik, larderiarik, gehiegikeriarik, jazarpenik edo edozein motatako eraso psikologiko, fisiko edo sexualik.

6.4 LANEKO ARAUAK

- **Nahitaezko lanaren debekua eta kontratazio-politikak**

Errefusatu egiten da eta ez da zuzenean zein zeharka erabiliko ezta baliatuko bere borondatearen kontra behartuta lan egiten duen langilerik, edozein modutan izanik ere: mehatxuak, zigorrak, gabetzea, esklabotza edo erdiesklabotza.

ORKLI Taldeak indarreko araudiaren araberako kontratazio politika dauka. Hortaz, legez aurreikusitako baimenak ematen ditu (oporrak, gaixotasuna eta istripuak, amatasuna eta aitatasuna, erretiroa, etab.) eta bizi-maila duina asetzeko ordainsariak eskaintzen ditu.



ORKLI Taldeko pertsonen lanaldiak edo lan-egutegiak ez du inola ere legezko muga gaindituko eta, langileek aparteko orduak eginez gero, legeak aurreikusi bezala konpentsatuko zaie.

- **Adingabeak babestea**

Adingabeak babestea **ORKLI Taldearen** Printzipio Etiko bat da, inplikatzeko duena umeen lanaz ez baliatzea. Umeen lantzat jotzen da umeei haurtzarora, potentziala eta duintasuna kentzen diena eta beren garapen fisiko eta psikologikoari kalte egiten diena.

- **Laneko aukera berdintasuna eta diskriminaziorik eza**

Aukera- eta tratu-berdintasun eraginkorra errespetatzen da eta hura errazten da lana lortzeko eta laneko promoziorako prozesuetan, bermatuz horietan arraza, sexua, ideologia, orientazio sexuala, adina, ezgaitasuna, gaixotasuna edo diskriminazio iturri izan daitekeen beste edozein ezaugarriengatik ezberdintasunik egingo ez dela.

Ondorioz, kontratazio, hautaketa edota promozio profesionaleko prozesuetan esku hartzen duten enpresako pertsonak objektibotasunez gidatuko dituzte beren jardun eta erabakiak, bete beharreko lanpostuaren profila eta beharrezanekin bat datozen pertsonak identifikatzeko helburuarekin, aukera-berdintasuna sustatuz.

- **Laneko segurtasuna eta osasuna**

Pertsonen osasunari eta segurtasunari buruzko arriskuak prebenitzeko, **ORKLI Taldeak** prebentzio-jarduera integratu egiten du lanari lotutako istripuak, lesioak eta gaixotasunak prebenitzeko neurrien antolakuntzan, lanpostua pertsonara egokituz, indarreko araudiak ezartzen duen bezala.

Pertsonak uneoro errespetatuko dituzte laneko segurtasun eta osasuneko prebentzio neurriak, **ORKLI Taldeak** ezarritako baliabideak erabilia eta lantaldeetako kideek euren jarduerak segurtasun baldintzetan egiten dituztela ziurtatuta.

- **Etengabeko prestakuntza**

Pertsonen kompetentziak eta ezagutzen ikasketarako, prestakuntzarako eta eguneratzerako bitartekoak jartzen dira, euren garapen profesionala errazteko helburuarekin, bezeroei eta, oro har, gizarteari balio handiagoa eman diezaioten.

Pertsona guztiek egin behar dituzte bere eskura jartzen diren prestakuntza-ikastaroak, **ORKLI Taldearen** barruan dituzten funtzioak eta jarduerak hobetzeko, eta formazioaren aprobetxamendurik onena ateratzeko ahalegina egingo dute.

- **Kanpoko jardueren errespetua**

Pertsonak jarduera sozial eta publikoak egitea errespetatzen da, betiere haien jardun profesionalan eraginik ez badute.

Pertsonak alderdi politiko edo helburu publikoak dituzten beste erakunde batzuekin, instituzio edo elkarteekin izan ditzaketen loturak edo harremanak pertsonalak izango dira, **ORKLI Taldearekin** erlazioa ekidinez.

6.5 INGURUMENA

- **Ingurumenaren babesa eta kudeaketa**

ORKLI Taldeak konpromiso irmoa dauka ingurumena babestu, zaindu eta hobetzeko. Horrenbestez, enpresa ingurumen-inpaktu kaltegarriak gutxitzen saiatuko da bere jarduera garatzerakoan.

Horretarako, pertsonak enpresaren instalazioetan energia modu eraginkorrean erabiltzeko konpromisoa hartzen dute, baita jarduera orokorrean ere, baliabide naturalak babesteko helburuarekin.

- **Prebentzio-ikuspegia eta ingurumen erantzukizuna**

ORKLI Taldeak kontuan hartzen du funtsezko bizi-ekosistemak arriskuan jarriz gero, etorkizuneko belaunaldiek ondorioak pairatuko dituztela. **ORKLI Taldeak** ingurumenaren babesa sustatzeko konpromisoa hartzen du, prozesu naturalak egoki funtziona dezaten eta planetan bizitza ahalbidetzen duten bizi-ekosistemak kontserba daitezen.

- **Ingurumena errespetatzen duten teknologiak**

ORKLI Taldeak ingurumena errespetatzen duten teknologien garapena eta hedapena bultzatzen du. Izan ere, gutxiago kutsatzen dute, baliabideak modu iraunkor batean erabiltzen dituzte, isurketak eta produktuak gehiago birziklatzen dituzte, eta hondakinak hobeto kudeatzen dituzte.



6.6 USTELKERIAREN AURKA

- **Baldintza orokorrak**

ORKLI Taldea ustelkeriaren aurka dago, haren forma guztietan, eta, beraz, ez du onartzen zilegi ez den moduan enpresatik kanpo dauden pertsonen nahian eragitea irabazi edo abantailen bat lortzeko. Ustelkeria edo eroskeriako ekintzak guztiz debekatuta daude, baita zilegi ez den moduan edozein abantaila mota lortzeko eskaintza edo promesa zuzen edo zeharkakoak eta eraginen trafikoa ere.

- **Oparien politika**

Opariak **ORKLI Taldearen** markaren irudia sustatzera bideratuta daude. Ezin da, zuzenean edo zeharka, opari, mesede edo konpentsaziorik eman ez onartu (dirua edo gauzak), horien natura edozein delarik ere, enpresaren harremanetan zilegi ez den moduan eragiteko.

Opariak eman eta onartu daitezke balio ekonomiko hutsala edo sinbolikoa dutenean eta kortesia edo arreta komertzialerako direnean.

Egoera eta kultura jakin batzuetan, fede onez eskainitako opari bat errefusatzeak sentikortasunik eza adierazi edo negozio-harreman bat kaltetu dezake. Halakoetan, oparia **ORKLI Taldearen** izenean onartuko da eta, jarraian, hartzailak Giza Baliabideen Sailari emango dio, honek gizarte-intereseko helburuetara bideratu dezan.

- **Harremanak Administrazio Publikoekin**

Debekatuta dago agintari, funtzionario publiko eta alderdi politikoekiko (estatukoak edo atzerritarrek) eroskeria modu oro.

ORKLI Taldeak ez du, berez zein tartean jarritako beste pertsonen bidez, alderdi politikoen legez kanpoko finantzaketarekin zerikusia duen inolako dohainik ez ekarpenik egingo, mailegu edo aurrerakin moduan bada ere.

- **Erantzukizun soziala hornidura-katean**

Era berean, debekatuta dago hornitzaile, bazkide eta bezeroe-kiko eroskeria modu oro. Halaber, bermatzen da hornitzaileekin harremanetan ustelkeria eta eroskeria praktikak baztertuta egongo direla.

- **Kapitalen zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa**

ORKLI Taldeak kapitalen zuritzea eta terrorismoa finantzatzearen gaineko aplikagarriak zaizkion lege nazional eta nazioarteko guztiak beteko ditu.

Hortaz, bezeroak identifikatzeko, informazioari buruzko eta barruko kontroleko neurriak aplikatuko dira eta autoritateekin lankidetzan jardungo da.

6.7 GARDENTASUNA, INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

- **Etika negoziotan. Gardentasun politika**

ORKLI Taldeak merkatuei eta, oro har, gizarteari informazio fidagarria transmititzeko konpromisoa hartzen du, enpresarekiko leiala den irudia egiteko, kontabilitate printzipio orokorren eta aplikagarriak diren nazioarteko arauen informazio finantza-riorearen arabera.

Debekatuta dago hirugarrenen hutsegiteak eragiteko engainua erabiltzea:

- a) Enpresa hornitzaileekin, bazkideekin, bezeroekin eta Administrazio Publikoekin harremanetan ez da azalduko enpresak ez duen kaudimenik.
- b) Debekatuta dago norberak bere buruari xedapen-ahalmena faltsu bat esleitzea, enpresaren aktiboak erabiltzeko, eskualdatzeko eta zergapetzeko.

- c) Ez da simulatuko kontratazioaren xede diren ondasunen edota baldintzen benetako ezaugarriei buruzko bestelako errealitate bat.

ORKLI Taldeak kontratuak egiten eta betetzen ditu gardentasunaren, egiakotasunaren eta fede onaren printzipioen arabera. Kontratuak horien xedapenen arabera gauzatu behar dira, eta, besteak beste, sinatzaileen ordainketa-baldintzei, bermeei eta gaitasunari buruzko gaiak adierazi behar dituzte, alde kontratzaileen izenean eta ordezkari gisa jardun dezaten.

- **Administrazio Publikoekin lankidetzeta eta gardentasuna**

Agintariak, organismo erregulatzailerak eta Administrazio Publikoekin izan beharreko harremanak lankidetzeta eta gardentasun printzipioetan planteatuko dira. Administrazio Publikoekin dituen betebeharrak betetzen dira, bereziki, Ogasun Publikoa eta Gizarte Segurantzarekin, bai eta diru laguntzak ematen dizkieten erakundeekin.

Gutziz debekatzen dira zerga betebeharrak ekidin edo irabaziak lortzeko Ogasun Publikoa, Gizarte Segurantzza edo antzeko organismoen kalterako portaerak.



6.8 INFORMAZIOAREN ETA BESTELAKO BALIABIDEEN ERABILERA

- **Intimitatea babestea. Izaera pertsonaleko datuen erabilera**

ORKLI Taldeak pertsonen intimitate eskubidea errespetatzen du, bere adierazpen guztietan, bai eta internet bidezko edo beste komunikabideetatik pertsonak dituzten komunikazioak ere. Bereziki, pribatutasuna eta datu pertsonalei buruzko esku-bideak errespetatuko dira.

- **Enpresaren aktiboen eta baliabideen erabilera arduratsua**

Pertsonen eskura jartzen dira jarduera profesionala garatzeko beharrezko aktibo eta baliabideak. Horien artean daude enpresaren komunikabideak (telematikoak barne), sistema eta ekipo informatikoak, baliabide teknologikoak, instalazioak eta baliabide finantzarioak. Pertsonak, bere aldetik, aktibo eta baliabide horiek modu arduratsuan erabiliko dituzte.

- **Informazio Konfidentzialaren tratamendua eta babes**

ORKLI Taldeak informazioa eta ezagutza enpresa kudeaketa-rako bere aktibo nagusi eta ezinbestekotzat jotzen du; beraz, babes berezia ematen die.

ORKLI Taldeak daukan izaera ez-publikoko informazioa (euskarri informatikoan edo bestelakoetan), oro har, informazio konfidentzialtzat joko da eta, ondorioz, kontu handiz erabiliko da eta hura babesteko beharrezko neurriak jarriko dira.

Hirugarrenen informazioa, lehiakideen informazioa barne, legalki lortuko da eta pertsonak baztertu egingo dute zilegi ez den moduan lortutako informazioa.

ORKLI Taldearekin lan harreman ohikoa edo berezia amaitzen denean, pertsonen konfidentziasun betebeharra mantendu-ko da eta hauek informazio konfidentzialarekin zerikusia duten informatika-terminaletan biltegitratutako bitarteko edo dispositiboak eta informazioa bueltatu beharko dituzte.

- **Jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideen errespetua**

ORKLI Taldea osatzen duten pertsonak jabetza intelektualaren, jabetza industrialaren eta enpresa-sekretuen eskubideak errespetatu behar dituzte, jardura profesionalaren, jabetza intelektualaren eta enpresa-sekretuen ustiapen-eskubideak ORKLIren jabetzakoak izango dira.

Halaber, **ORKLI Talde**tik kanpoko hirugarrenen jabetza intelektualaren eta jabetza industrialaren eskubideak eta enpresa-sekretuak errespetatu behar dira.

ORKLI Taldeak segurtasun informatikoa zaindu eta software ez baimenduaren erabilera debekatzen du. Ondorioz, enpresa osatzen duten pertsonak ezin dute **ORKLI Taldearen** ekipo informatikoetan software maltzurrik edo dagokion lizentziarik ez duen edo enpresaren zein hirugarrenen sistema informatikoen segurtasunean edozein elementu arriskutsu sartzeko arriskua daukaten programa edo aplikaziorik instalatu ezta erabili.

6.9 INGURUNEAREKIKO INPLIKAZIOA

- **Integrazio kulturala**

ORKLI Taldeko lan-zentroetan tokiko kultura eta hizkuntza bultzatzen dira, horiek integratuz egunerokotasunean zein



bezeroekiko eta enpresa hornitzaileekiko harremanetan, eta Administrazio Publikoekin elkarlanean.

- **Baliabide ekonomikoak**

ORKLI Taldearen irabazien zati bat herritarren hezkuntza, presakuntza eta garapena bultzatzeko jarduerak antolatzeke erabilizten da, gure ekoizpen-zentroak kokatzen diren eskualdeetan.

- **Lehiakortasun librea eta merkatua babestea**

ORKLI Taldeak lehiakortasun askeari oztoporik ez egiteko konpromisoa hartzen du, kolusiorik ez gertatzeko eta lehiakortasuna ez murrizteko, prezioen aldaketa sor dezakeen edozein jokabide saihestuz. Ekidin egingo da lehiakortasuna zilegi ez den moduan bortxatu edo murriztu dezakeen jokabide oro.

ORKLI Taldeak edozein erakundetan parte hartzeke, kontuan hartuko dira ekintza horien praktikatik eratorritako prezioak jarzteke askatasuna errespetatzea bermatzen duten printzipioak.

- **Harremanak Enpresa Hornitzaileekin, Bazkideekin eta Bezeroekin**

Jasangarritasunean eta gizarte erantzukizunean oinarritutako irizpideak erabiltzen dira enpresa hornitzaileak hautatzeko prozesuetan, sozialki arduratsuak diren praktikak bultzatuta, erakundearen hornidura-katearen bitartez. Enpresa hornitzaile, bazkide eta bezeroen hautaketa-prozesuetan kalitate, aukera, kostu eta jasangarritasunari buruzko irizpideak aplikatu beharko dituzte pertsona guztiek, beti ere ORKLI Taldearen interesen defentsan jardunez.

- **Orkli Taldearen irudia eta izena sustatu**

ORKLI Taldeak izen sendoa dauka bere esperientzia zabalari eta bertan lan egiten duen pertsona talde fidagarri eta leialari esker. Lantalde hori **ORKLI Taldeko** kultura osatzen duten Printzipio Etikoekin eta lan onarekin konprometituak dago.

Pertsona guztiek zaindu behar dute **ORKLI Taldearen** irudia eta izena bere jarduera profesional guztietan. Era berean, enpresa hornitzaile, bazkide eta bezeroek korporazioaren irudia eta izena errespetatu eta ondo erabiltzen dutela zainduko dute.

